



Odolkiak ordainetan
Odolkiak ordainetan
Kateak Astintzen, 2014

Altxa zaitez, gazte!

ODOLKIAK ORDAINETAN Tafallako (Nafarroa) taldea gero eta oihartzun handiagoa izaten ari da. Taldea duela bi urte inguru sortu zen, eta beren lehenengo diskoa otsailean kaleratu dute, baina Euskal Herrian barrena jadanik jendaurreko emanaldi ugari egin dituzte eta gero eta ezagunagoak dira.

Urko Araiz (gitarra eta ahotsak), Iñaki del Río (bateria), Xabier Osés (kontrabaxua eta ahotsak) eta Amañur Esparza (ahotsa eta gitarra) taldeki-deak gazteak dira, 23 eta 24 urte dituzte, eta beren gogoia, grina, kementa eta sasoia nabarmena da diskoko kantuen entzunez gero.

Hamar kantu grabatu dituzte, horietatik gehienak euskaraz, bat ingelesez eta bestea gaztelaniaz. Gaztelaniaz kantatzen duten *Crazy* abestiaren musika 70eko hamarkadako The Adicts punk rock talde ingelesarena da. Gainerako abesti guztien musika eta hitzak Odolkiak Ordainetan taldeko kideek beraiek sortu dituzte. Kantuetan rock and roll, rockabilly, psychobilly eta punk rock aireak sumatzen ahal dira. Bizitasun handiz jotzen dute, eta kantuek gorputza mugiarazten digute.

Grabazio saioak Iruñeko K estudioetan egin dituzte. Grabazioa eta ekoizpena ongi eginak daude, eta doinu indartsua gauzatu dute, ozen entzuteko modukoa. Kantuak grabatzeko garaian mamia bera nabarmendu nahi izan dute, eta soberan egon daitezkeen moldaketak edo apaingarriak alboratu dituzte. Kantuak laburrak dira eta disko osoa arin eta erraz entzun daiteke (ordu erdiko iraupena du).

Hitzetan, gehienbat kritika, protesta eta salaketa egiten dute. Modu zuzenean edo ironia baliatuz, ahoan bilorik gabe mintzatzen dira. Laguntasunaz eta saldukeriaz: “Betirako lagunak izango ginela, hori da txikitan esan zenidana, baina gaurkoan argi gelditu egin da traidore hutsa baino ez haizela izan. Zeren zain egon ote zara? Lagun izatetik etsai bilakatzeraz!” (*Izendaezina*).

Mendekuz: “Zure odola ikusi nahi dut, beldurra zure begietan, bizirik zauden bitartean, tori odolkiak



ordainetan. Behingoz zerbait egin nahi dut, hitzak ekintza bihurtu, nere munduaren jabe izan” (*Odolkiak ordainetan*).

Gogaituta eta nazkatuta egoteaz: “Inguruko guztiaz potrotaraino nago, zapore berdina asteburuoro, zerbait egin ala ez zure esku dago, putzu kakaztu honetan sakonago erortzen gaudelako. Kanean gora goaz barre bat eta barre bi, ta polizia datorkigu atzetik; betiko kopla bera, ezin gaituzte pakean utzi” (*Hor konpon*).

Gizartearen eta bizitzaren inguruan gogoeta egiten dute: “Ta dena berdin dago oraindik; bizitzaren dekadentzia hutsa; hor dabil mundu guztia, amets bakarraren bila; ta ez dakite, ni beste aldera noa” (*Dekadentzia hutsa*). “Nire hiri zikinetik urruti joan nahi dut, bestelako abenturen bila; zer ekarriko ote dit patuak, mundu berri bat egunsentioro” (*Uste baino lehenago*). “Gu eta gutarrak geratu gara hemen, gaur atzo bezala bizitza pasatzen, norak erakutsiko digu bizitza bizitzen” (*Udaberririk ez*).

Eta gazteak altxatzera eta borrokatzera animatzen dituzte: “Biharko eguna ez da existitzen, atzo egin zuena ez du gogoratzen; gaur atzo bezala nazkaz hilko da; aspaldi amore eman zuen gazte zombiak. Altxa gazte!” (*Gazte zombi*).

Kateak Astintzen Nafarroako musika mugimenduaren inguruko blogak diskoa argitaratzen lagundu die. Blog horrek berak iaz *Kateak Astintzen. Nafarroako kale musikaren bilduma #1* kaleratu zuen. Bilduma horretan, besteak beste, Odolkiak Ordainetan taldearen *Uste baino lehenago* kantua entzun daiteke.

Odolkiak Ordainetan taldeak egiten duena arretaz jarraituko dugu hemendik aurrera, eta beren jendaurreko emanaldi bat ikusteko aukera baldin badugu ez dugu galduko. Taldeak zer egin nahi duen oso argi dauka, eta beren kantuen entzunez gero indartu eta adoretu egiten gara, taldeak kemen handia transmititzen baitu. ■

Joxi Ubeda

